



**Alianza
Cooperativa
Internacional**

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren mezua

Aliantzako Kooperatiben 92. Nazioarteko Eguna
Nazio Batuetako Kooperatiben 20. Nazioarteko Eguna

2014ko uztailaren 5a

“Kooperatibei esker, denontzako garapen iraunkorra”.

“Kooperatibei esker, denontzako garapen iraunkorra” izango da uztailaren 5ean ospatuko den Kooperatiben Nazioarteko egunaren goiburua. Komunitatearekiko kezka agertzea da kooperatiben mugimenduaren sortze-balioetako bat, eta horrekin lotuta, komunitateentzako bizi-baldintza egokiak modu iraunkorrean babesteko beharra presente dago kooperatiba guztien ekintza eta ikuspegiaren oinarrian.

Global Office:

Avenue Milcamps 105
1030 Brussels Belgium
VAT: BE 535 539 869
ica@ica.coop
www.ica.coop

Regional Offices:

Africa
Nairobi - Kenya www.
icaafrica.coop

Americas
San José - Costa Rica
www.aciamerica.coop

Asia and Pacific New
Delhi - India
www.ica-ap.coop

Europe
Brussels - Belgium
www.coopseurope.coop

Sectoral Organisations:

Agriculture (ICAO)
www.ica.coop

Banking (ICBA)
www.icba.coop

Consumers (CCW)
www.cw.coop

Fisheries (ICFO)
www.icfo.coop

Health (IHCO)
www.ihco.coop

Housing
www.icahousing.coop

Insurance (ICMIF)
www.icmif.coop

Industry and Services
(CICOPA)
www.cicopa.coop

Oro har, laguntzeko, eusteko eta irauteko gaitasuna da iraunkortasuna. 1980ko hamarkadatik, kontzeptu horrek garapen handia bizi izan du, ingurumen, ekonomia eta gizarte-arloko dimentsioak barneratu arte. Kasu honetan ere, kooperatibak izan dira iraunkortasun modernoaren aitzindariak. Gizakien beharrezkoak ardatz hartuta, gaur egun bizi ditugun iraunkortasun-krisiei aurre egiteko eta “balio partekatu” berezia eskaintzeko gai dira.

“Kooperatibak iraunkortasun-sortzaile direla agerraraztea” da Kooperatiben Hamarkada baterako Planaren helburuetako bat¹. Mundu osoari azaldu eta erakutsi behar dio Kooperatiben sektoreak, iraunkortasuna bere izaeraren berezko ezaugarri bat dela, eta kooperatibek iraunkortasun horren aldeko ekarpen positiboa egiten dutela.

Ildo horretatik, Aliantzak kooperatiben gaineko [azterketa](#) bat prestatzeko enkargua egin zuen, iraunkortasunarekin daukaten lotura egiaztatu ahal izateko, sektore eta munduko gune desberdinak kontuan hartuta. Azterketa hori 2013ko azaroan aurkeztu zen Ciudad del Cabon egindako gure Nazioarteko Biltzarrean. Txostenaren ondorioak argiak dira: iraunkortasuna kooperatiben balioetan eta funtzionamenduan presente dago, eta NBEk gobernuei eskatzen die “kooperatiben sorrera eta garapena bultzatu eta errazteko, eta are beharrezkoa denean ere, neurriak hartu ditzatela, pobrezian bizi diren edo talde zaurgarrien parte diren pertsonen (emakumeak, gazteak, ezgaituak, adinekoak eta indigenak barne) euren borondatez kooperatibetan parte hartu ahal izateko eta gizarte-zerbitzuen esparruan dituzten premiei erantzuteko”.²

Gaur egun, NBE asmo handiko xede berriak zehazten ari da 2015etik aurrerako eperako. Xede horiei Garapen Iraunkorren Helburuak izena emango zaie. Kooperatiben mugimenduak planeta osoko mila milioi pertsonengan dauka eragina, eta guk daukagun denontzako garapen iraunkorren ikuspegiari esker, ekimen horren bazkide garrantzitsuak izan gaitzke.

Mundu osoko kooperatibei eskatzen diegu erabili dezatela uztailaren 5a, XXI. mendean iraunkortasuna sortu eta garatzeko eredurik onena kooperatibena dela erakusteko.

¹ *Kooperatiben Hamarkada baterako plana, 15. orr.*

² NBEren 56/114 ebazpena, 2001eko abenduan onartua.



Las empresas cooperativas
ayudan a construir
un mundo mejor